

GARAPENERAKO LANKIDETZAKO TEKNIKARIEN LAN-POLTSA

LAN-POLTSAN DAUDEN PERTSONEKIN BETETZEKOAK DIREN ZERBITZUEI BURUZKO DATUAK

Kokapen geografikoa:	Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzian, Lehendakaritza (GLEA), Gasteizen.
Harreman juridikoa GLEA agentziarekin:	Aldi baterako lan-kontratua Txanda-kontratua
Gutxieneko ordainsaria:	45.031,60€ gordin urtean

LAN-POLTSA HANDITZEKO DEITUTAKO HAUTAKETA-PROZESUAN PARTE HARTZEKO BERARIAZKO BETEKIZUNAK

Titulazioa:	Lizentziatura/ Ingeniaritza/Arkitektura/Diplomaduna/Gradua
Graduondoko titulazioa*:	Graduondoa/Masterra/Doktoregoa Garapenerako Lankidetzan *
Euskara jakitea.	3. profila (Prozesu honetan ez da profilen akreditazio-frogarik egingo).

* Unibertsitate batek ziurtatutako graduondoko titulua, gutxienez 600 ordukoa, **garapenerako lankidetzaren alorrean**. Atzerriko tituluen kasuan, irizpide bera bete beharko dute eta, gainera, dagokion itzulpen ofizialarekin batera aurkeztu beharko dira, euskarara edo gaztelaniara ekarrita.

GARAPENERAKO LANKIDETZAREN EUSKAL AGENTZIAREN LANKIDETZARAKO TEKNIKARIEN LAN-POLTSA HANDITZEKO DEIALDIAREN OINARRI OROKORRAK

- 1.- Deialdiaren xedea
 - 2.- Hautaketa-prozesuan parte hartzeko betekizunak
 - 3.- Instantziak
 - 4.- Epaimahai Kalifikatzailea
 - 5.- Prozesuaren garapena.
 - 6.- Epaimahaiaren proposamena
 7. Gorabeherak
 - 8.- Betekizunak bete izana egiaztatzea
 - 9.- Datu Pertsonalen Babesari buruzko oinarritzko informazioa
-

BAT.- DEIALDIAREN XEDEA

Deialdi honen xedea da **Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren** garapenerako lankidetzarako teknikarien lan-poltsa handitzea. Zerbitzua aldi baterakoa izango da, baldintza hauekin:

Kokapen geografikoa: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bulegoetan, Gasteizen.

Administrazioarekiko harremanak Aldi baterako lan-kontratua, txanda-kontratua.

Gutxieneko ordainsaria: 45.031,60 euro gordin urtean.

BIGARRENA.- HAUTAKETA-PROZESUAN PARTE HARTZEKO BETEKIZUNAK.

1.- Hautaketa-prozesuan parte hartu ahal izateko ezinbestekoa izango da betekizun hauek betetzea:

16 urte beteta izatea eta 65 urte baino gehiago ez izatea.

Europar Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea edukitzea, edo Europar Batasunak egin eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenen bidez langileen zirkulazio askea duten estatuetakoa izatea.

Aurkez daitezke, halaber, Europar Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea dutenen ezkontideak ere, baldin eta zuzenbidez banatuta ez badaude, baita haren ondorengoak eta haren ezkontide zuzenbidez banatugabearen ondorengoak ere, hogeita bat (21) urte baino gutxiago badituzte, edota, gehiago izanik ere, haien kontura bizi badira.

Halaber, aurreko lerroaldeetan barne hartzen ez diren pertsona atzerritarrek ere parte hartu ahalko dute, baldin eta Espainiako Estatuko biztanle badira. Hautatuak izanez gero, kontratuaren xedea den jardura burutzeko administrazioaren baimena dutela egiaztatu beharko dute kontratua formalizatu aurretik, eta Administrazioarekiko harremana lan-kontratu bidezkoa izango da soilik.

Titulazioa: Lizentziatura/Ingeniaritza/Arkitektura/Diplomaduna/Gradua eta Garapenerako Lankidetzan Graduondokoa/Masterra/Doktoregoa izatea.

Emango diren zerbitzuak normal betetzea eragozten duen gaixotasun edo gabezia fisikorik ez izatea.

Diziplinazko espedientearen bidez Autonomia Erkidegoetako Administrazio Publikoetako edo organo konstituzional etako edo organo estatutario etako zerbitzutik baztertuta ez egotea; eta ebazpen judizial bidez ezgaitasun erabatekoa edo berezia ez izatea enplegu edo kargu publiko etarako, edo funtzionarioen kidegoan edo eskalan sartzeko, edo baztertu edo ezgaitu den kidegoan lan-kontratudun langileek betetzen dituzten eginkizunen antzekoak betetzeko. Beste Estatu bateko nazionala izanez gero, ezgaitua edo egoera baliokidean ez egotea, ezta diziplina-zehapenik edo baliokiderik ez izatea ere, dagokion Estatuan baldintza berberetan enplegu publikora iristea eragotziko duenik, hain zuzen.

Ezintasun edo bateraezintasunezko legezko arrazoirik ez izatea.

Euskara: **HAEE erakundearen 3. Hizkuntza Eskakizuna** edo ondorio berak aitortua dituenak. **Ez da euskara-probarik deituko hura egiaztatzeko.**

2.- Aurreko betekizun guztiak eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean bete beharko dira. Prozesu guztian zehar betekizun horiek mantendu beharko dira.

3.- Deialdi honetan parte-hartzetik kanpo geratuko dira dagoeneko GLEA agentziaren Garapenerako Lankidetzaren Teknikarien lan-poltsan sartuta dauden pertsonak.

Deialdi honen bitartez poltsan barne hartzen diren langileak, hautaketa-prozesua amaitzen den unean, Garapenerako Lankidetzaren Teknikarien lan-poltsan sartuko dira dagoeneko hartan dauden pertsonen atzetik, zero punturekin, eta hautaketa-prozesuaren ondoriozko hurrenkera berean. Puntuazio hori berriro barematuko da urte bakoitzeko lehen hiruhilekoan, 2006ko maiatzaren 30eko EAEko administrazioan eta haren Erakunde Autonomoetan aldi baterako zerbitzuak emateko langileak hautatzeari buruzko akordioaren 26. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

HIRUGARRENA.- INSTANTZIAK.

Eskabideak aurkeztea

Hautaketa-prozesu honetan parte hartu nahi duten pertsonak **Internet bidez egin beharko dute eskaera**, helbide elektroniko honetan aurkituko duten eredia betez: www.ivap.euskadi.eus (atala: Enplegu Publikoa, lan-poltsa):

Internet bidezko eskaera Eusko Jaurlaritzaren KZGunea zentro publikoen eskutik ere egin ahalko da. Helbide elektroniko honetan aurki daiteke KZGunea zentroen zerrenda eta horien kokapena: www.kzgunea.net.

Merituak egiaztatzeko epea eta modua.

Egiaztatzeko epea: Hautagaiek merituen egiaztagiria eskabideak aurkezteko epe berean alegatu eta aurkeztu beharko dituzte. Ezin izango dira balioetsi eskaerak aurkezteko epean argudiatu eta justifikatu ez diren merezimenduak, ezta epe horretan argudiatu arren, geroago justifikatu direnak ere.

Dokumentazio guztia eskaneatu eta Internet bidez bidaliko da eskabidea egiten den unean edo, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan ezarritako moduan aurkeztu beharko da, eskabideak aurkezteko epearen barruan.

Hau izango da eskabideak helarazteko epea **2020ko martxoaren 2an hasiko da epea eta 2020ko martxoaren 6an amaituko da.**

Lan-poltsa handitzeko prozesuan onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda **2020ko martxoaren 17an** argitaratuko da.

LAUGARRENA.- EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA.

1.- Epaimahai kalifikatzailea Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Zuzendariaren Ebazpen bidez izendatu da eta hauek osatzen dute:

Lehendakaria: Blanca Perez Jimenez

Ordezkoa: Amaia Etxabarri Saiz

Batzordekidea: Noemi de la Fuente Pereda

Ordezkoak: Maria Pilar Diez Arregui

Batzordekidea: Ainara Arrieta Arrieta

Ordezkoak: Nagore Gorostiza Mendia

Idazkaria: Ana Rojo Gonzalez

Ordezkoa: Nagore Olabarria Santobeña

2.- Edozein kasutan, Epaimahaiak aholkularien lankidetzaz jaso ahalko du, hautaketa-prozesuko proba guztietarako edo horietako batzuetarako, eta aholkulari horiek beren berezitasun teknikoak burutzeraz mugatuko dira.

3.- Epaimahaiko kide guztiek ahotsa eta botoa izango dute. Idazkariak ez du halakorik izango. Epaimahaiaren erabakiak bertaratutakoen botoen gehiengoz hartuko dira eta, berdinketa egonez gero, Lehendakari modura jarduten duenak ebatziko du.

4.- Epaimahaiko kide izango dira, gainera, dagozkion ordezkioak, titularrekin batera izendatu beharko direnak. Lehendakariaren kasuan izan ezik, ordezkioek titularren kualifikazio berdina izan beharko dute.

5.- Epaimahaia ezingo da eratu eta, beraz, ezingo da martxan jarri, Lehendakaria eta Idazkaria edo, hala badagokio, horiek ordezkatzeko pertsonak bertaratu gabe. Gainera, Epaimahaiko kideen erdia bertaratu beharko da, berdina da titular zein ordezkio izan.

6.- Epaimahaia osatzen duten pertsonak ezingo dute esku hartu, HAEE erakundearen Zuzendaritzari jakinaraziz, eta hautagaiek errekusatu egin ditzakete, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikuluan aurreikusitako inguruabarren bat gertatzen bada.

BOSGARRENA.- HAUTAKETA-PROZESUAREN GARAPENA.

LEHIAKETA-FASEAREN BALIOESPENA

TITULAZIOA	Puntuak
Garapenerako Lankidetzarekin lotutako graduondoko* titulazioa (lanpostua betetzeko eskatzen den graduondoko titulua salbuetsita)	3 puntu tituluko
Genero, Giza Eskubide, Ingurumen, Politika Publikoen Ebaluazio, Ekintza Humanitario, Gizarte eraldakuntzarako Heziketa edo Nazioarteko Ikasketekin lotutako graduondoko* titulazioa	2 puntu tituluko
Unibertsitateko edo graduondoko beste zenbait titulu*	puntu 1 tituluko

* Unibertsitate batek ziurtatutako graduondoko titulua, **gutxienez 600 ordukoa, garapenerako lankidetzaren alorrean**. Atzerriko tituluen kasuan, irizpide bera bete beharko dute eta, gainera,

dagokion itzulpen ofizialarekin batera aurkeztu beharko dira, euskarara edo gaztelaniara ekarrita.

LAN ESPERIENTZIA	Puntuak
Esperientzia Garapenerako Lankidetzaren Teknikari modura herri-administrazioan	0,10 puntu lan egindako hilabeteko
Lanpostua berariaz adierazten duen I. eranskinarekin egiaztatuko da (emandako zerbitzuen ziurtagiria)	

HIZKUNTZAK[]	Puntuak
Euskara PL4 /C2	3 puntu
Ingelesa B1 B2 C1/C2	1 puntu 2 puntu 3 puntu
Frantsesa B1 B2 C1/C2	1 puntu 2 puntu 3 puntu
Portugesa B1 B2 C1/C2	1 puntu 2 puntu 3 puntu

* Hizkuntzak: Hizkuntza bakoitzean maila handieneko titulua soilik aintzatetsiko da.

1. Hautagaiak eskuratutako puntuazioa, nahiz hautaketa-prozesuari dagozkion bestelako iragarkiak, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (HAEE) iragarkien oholetan argitaratuko dira Gasteizen, Bilbon, Donostian eta Oñatin. Era berean, <http://www.ivap.euskadi.eus/enplegu-ivap/> helbidean (Atala: Enplegu Publikoa, lan-poltsa) eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren webgunean <https://www.elankidetz.euskadi.eus/x63-homev7/eu/> argitaratuko dira.

Prozeduraren edozein unetan Epaimahaiak jakingo balu hautagaietakoren batek deialdian eskatzen diren betekizunak ez dituela betetzen, hartatik baztertua izango da, aldeztu aurretik interesdunari jakinarazita, eta egun berean HAEE erakundeko Zuzendaritzari horren berri emango zaio.

Hautagaiak hautaketa-prozesuaren diseinuan ezartzen den sistemarekin hautatuko dira.

Sailkapenaren hurrenkera aurkeztutako merituen ondorioz eskuratutako puntuen baturarekin erabakiko da.

Puntuazioan berdinketa gertatzen denean, ez da berdinketa hausteko irizpide modura aplikatuko emakumeari lehentasuna ematen diona, gorputz horretan % 40tik gorako ordezkaritza baitauka, Emakume eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 8ko 4/2005 Legearen 20.4 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. NAN zenbakia ezarriko da hurrenkera-irizpide modura (txikitik handirako hurrenkeran).

SEIGARRENA.- EPAIMAHAIAREN PROPOSAMENA.

Hautaketa-prozesuko atal ezberdinetako kalifikazioa amaituta, Epaimahaiak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako Zuzendariari hautaketa-prozesuko behin betiko emaitzak emango dizkio, hark dagokion Ebazpena eman dezan, lan-poltsa puntuazioaren hurrenkeraren arabera eratutzat joz.

Ebazpen hori HAEE erakundearen eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren orrialdeetan argitaratuko da.

ZAIZPIGARRENA.- GORABEHERAK

Epaimahai Kalifikatzaileak sor daitezkeen zalantzak argitu eta hautaketa-prozesua egoki burutzeko beharrezkoak diren erabakiak hartzeko ahalmena izango du, oinarriotan adierazi gabeko gaiei dagokienez.

Deialdia, hartako oinarriak eta haietatik eta Epaimahaiaren jardunetik eratortzen diren gainerako administrazio-egintzak Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitako kasu eta modutan aurkatu ahalko dira.

ZORTZIGARRENA.- BETEKIZUNAK BETE IZANA EGIAZTATZEA.

Lan-poltsako kide diren pertsonen 2. oinarrian hautaketa-prozesuan parte hartzeko derrigorrez eskatzen diren betekizunak egiaztatzen dituzten jatorrizko dokumentuak aurkeztuko dituzte, hala eskatzen zaienean.

Adierazitako epearen barnean eta ezinbesteko kasua salbuetsita, lan-poltsan dauden pertsonen eskatzen den dokumentazioa aurkeztuko ez balute edo eskatzen diren betekizun guztiak betetzen dituztela egiaztatzen ez baldin badute, hautaketa-prozesutik baztertuak izango dira eta horien jardun guztiak bertan behera geratuko dira, beren instantzian faltsutasuna egiteagatik izan dezaketen erantzukizunaren kalterik gabe.

BEDERATZIGARRENA.- DATU PERTSONALEN BABESARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Erregelamendua (EB), datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa (datuen babeserako Erregelamendu orokorra), eta datuak babesteari dagokionez indarrean den gainerako araudia betez, jakinarazten da datu pertsonalak "Lan-poltsaren kudekaeta" izeneko tratamendu-jardueran sartuko direla.

Tratamenduaren erantzulea: Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia

Tratamenduaren xedea eta aurreikusitako erabilerak: Lan egin duten pertsonak berriro barematzeari buruzko lan-poltsa, prestutasunak, bajak, deialdiak, kontratazioak kudeatzea.

Legitimazioa: Tratamendua derrigorrezkoa da interes publikoan edo tratamenduaren arduradunari emandako ahalordetze publikoak betetzean burututako misioa betetzeko.

Informazioaren hartzaileak: Enplegatuak.

Euskal Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuetara ere lagatzea aurreikusten da, berezko lan-poltsarik ez dutenean. Kasu horretan, interesdunek lagapen hori gerta dadin beren baimen berariazkoa eman beharko dute.

Eskubideak: Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzekoa, informazio gehigarrian azaltzen diren beste eskubide batzuekin batera.

Informazio gehigarria: Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta xehetasunezkoa kontsulta daiteke webgune honetan: <https://www.elankidetza.euskadi.eus>